

# Nafarkaria

• ostirala • 2002ko urtarrilaren 25a

**Egunkaria**


**Gehigarri honetan**



**Inauteriak** • Ituren eta Zubieta, Aniz eta Berroeta, Leitza eta Sunbilla... asteburuan mozorrotzeko leku anitz.

**Jabier Bereau** • «Inauterietan mozorrotu egiten gara, ez disfrazatu»

## Herrietako butaketan berriz



Herrietako zinema aretoak aspaldi itxi zituzten. Herrietan zaila da zinema komertziala iraunkortasunez eta gaurkotasunez pantailaratzea. Errentagarritasunari begira, zinema industriak ikusle uholdea behar du, eta herrietako demografiak ez du horretarako laguntzen. Azken urteotan, baina, zenbait herrietan oraingo film komertzialak eskaintzen saiatu dira. Leitza, Etxarri Aranatz, Bera, Doneztebe, Elizondó eta Altsasuko kasuak bildu ditugu.



# Baztan • 'Q' agiria duten landetxe gehiago

Baztango borts landetxeri eta Uztarrozeko bertze bati kalitatearen ziurtagiria eman diete

Uztarrozeko Casa Choromillok, Anizko Jauregia I eta II etxeek, Elizondoko Urruskak eta Arizkongo Bozate auzoko Lizardiko Borda I eta II etxeek, Madrilgo Fitur turismoaren ferian, kalitatearen 'Q' zeinua jasoko dute. Guztiak Mendiko Turismo Mahaiak bultzatutako kalitatearen planean parte hartu dute, 1999. urtetik. Geroztik ahalgin berezia egin behar izan dute denek kalitatearen mailarik gorenera iristeko.

Gotzone Bakaikoa Lizardiko Borda landetxetako jabea da, eta oso pozik dago kalitatearen ziurtagiria lortuta. «Landetxeak ematen digunarekin bizi gara, gure lanbide bakarra hau da eta, horregatik, errazagoa da guretzat turistarekin harreman estuagoa izatea», erran du Bakaikoak. «Etortzen direnean ongietorria egin, behar diren azalpenak eman eta ondotik, gure beharra izanez gero, 24 orduetan deitzen ahal digute, nahi dutenarentzako. Horrez gain, mendian barrena ibilbideak eta irteerak eskaintzen ditugu».

Bakaikoak azaldu duenez, kalitatearen zeinua lortzeko, etxearen egitura ez dira egin behar

**Espainiako Kalitate Turistikoaren Institutuak kalitatearen 'Q' zeinua eman die Nafarroako sei landetxeri. Landetxeetako jabeek prestakuntza berezia jaso dute eskatzen diren betebeharrak gainditu ahal izateko.**



Arizkongo Bozate auzoko Lizardiko Borda landetxeak kalitatearen 'Q' ziurtagiria lortu berri du. ● RAKEL GOÑI

aldaketa handiak. Batez ere, turistenganako harrera —eta, oro har, tratua— bultzatu behar da. «Guretzat ez da izan oso zaila, jadanik ohitura hori genuelako; hala ere, orain gogo handiagoa-

rekin egin beharko dugu merezimendua izaten jarraitzeko».

**Dedikazio osoa**

Landetxe aunitzetako jabeentzat bigarren diru sarrera da

turismoa. Gehienek bertze lanbide bat izan ohi dute. Horregatik, zaila da turistari zerbitzu osoagoa eskaintzea. «Dedikazio osoa eskatzen dizu», dio Bakaikoak. «Batuetan, bikoteak direnean batez ere, ez ditugu ikusi ere egiten. Baina, bertzeetan, orduak pasatzen ditugu

bezeroekin, azalpenak ematen: jatetxeak, bisitatzeko lekuak, mendiak... Hainbat gauza jakin nahi izaten dituzte, eta guk erantzunak emateko prest egon behar dugu».

Kalitatearen 'Q' ziurtagiria lortzeko, etxe bakoitzaren jarduerak kontuan hartu eta aurrera atera behar dira. Landetxearen informazio guztia, jarduerena eta oro har interesa duen guztia-rena dokumentuetan egon behar du islatua eta turistaren esku egon behar du une oro. Nafarroan egun, denetara, zazpi landetxek dute kalitatearen zeinua; ziurtagiria lortzen lehena Orondrizko Txantxo etxea izan zen, Pakita Zabalzarena. Iazko udan erdietsi zuen.

→ Rakel Goñi

**Bilbo**

**Nafarrak Botxora**

Zenbat Gara elkarteak antolatuturik, bihar Nafar Eguna ospatuko dute Bilbon. Hori dela eta, hirurehun bat lagun joanen dira Urrobi aldetik Bilbora, udan bizkaitarrek egin zieten bisita itzultzera.

Goizeko hamabietan, Aurizberriko fanfarrearen eta Luzaideko dantzarien laguntzaz, kalejira egingen dute, Albia inguruan. Ordu bietan, lagunarteko herri bazkaria izanen da, Kafe Antzokian (10 euro), eta ondoren, jaia: bertsolariak, Antsobiko buhameak, fanfarrea, Luzaideko bolantak, dantzaldia...

Zenbat Gara elkarteak iazko uztailean haurrendako eta familiendako udaldia antolatu zuen Aurizberriko Urrobi kanpinean. Elkartekoen aburuz, ordukoa «oso esperientzia aberasgarria» izan zen, «hainbat eskualdetako euskaldun askoren arteko komuneko gune» bilakatu baitzen kanpina. Ondorioz, Zenbat Gara elkartearen eta bertako jendearen artean, etorkizunean ekimenak abiarazteko bidean, lagunartekoa baino haratagoko harremana sortu zen. Hori dela eta, bizkaitarrek udan egin zuten gisara, orain neguan zenbait nafar (dantzariak, musikariak, kargudunak...) Bilbora joanen dira bihar, bisita errendatze- ra.

Zenbat Gara elkartetik adierazi dutenez, «giro on eta atseginezkoa izateaz gain, eraginkor eta bizigarria den ekimen honetan parte hartzeko nahia duen edonorentzat ateak zabalik daude, noski, eta ongi etorri izango da».

→ Asier Azpilikueta

**mapa mutuak**

PELLO LIZARRALDE



Poeta gehiegi omen da munduan kilometro koadroko. Begi bistakoa.

Dena den, hori eta antzeko baieztapenak egiten dituen askok beste kontu batzuk ahanzten ditu. Jakin nahi nuke, esate baterako, zenbat historialari dagoen Nafarroan metro koadroko.

Memoria kontua dela diote. Memoria historikoa kome- ni omen zaigu. Historialariak dio herri ezjakina garela eta gezur asko hedatu dela gutaz hemen bertan eta hor barrena. Eta hori konpontzen du afana historialariak.

Askok dira eta marka latzak jarri dituzte. Denen artean lortu dute, konparazio batera, Nafarroako hemeroteka eta artxiboetan edonoren etxean baino hauts gutxiago izatea.

Historialariak liburu marduletan bildu nahi izaten ditu hainbeste garrantziko ezagutzak. Itsaso hilaren koloreko mapa fosilizatuak gaineratzen ditu eta, hatzarekin marra

## Ukuiluak eta leinuak

oker bat seinalatzen duen bitartean, bere irribarreak zera dio: «Honaino iritsi ginen nafarrok». Handiak izan ginen, inondik ere.

Eta izan dira ondorioak. Oroitzen naiz orain dela gutxi arte irri egiten zitzaioela etxeko egongelan tapiz *kitch* bat eskegitzen zuten proletarioari. Ez zuen hemengoa ematen. Izan ere, hemengoa sinetsita zegoen historia franko zeukala erakusteko, eta bere armariak zituzten zurezko lanak enkargatzen ikasi zuen.

Memoria. Gogoratzen al dugu non jaio ginen? Ez naiz herriaren izenaz ari. Gogoratzen al ditugu gure sukalde- ak, logelak, jantziak...? Eta gure aitona-amonenak? Askori ez zaie erraza. «Eskiatzea ez da garestia», hasi

ziren esaten duela urte batzuk proletarioen seme-alaba asko.

Bi auto, bi telebisio, eta hiriko eta herriko etxea izateari normala dela irizten diona ezin oroitu da bere gurasoak eta bere aitona-amonak ukulura joaten zirela libratzera.

Ez zuten deus, eta dizdira zuen bakarra utzi ziguten: abizena. Eta guk harro erakusten dugu, ez dugu ahantzi- ko. Goyaren astoak ere ez. Hark ere aski ongi ezagutzen zuten bere leinua: astoa lehena eta astoa azkena.

Uholdeak izan diren herrietako hormetan seinaleak eta hitzak izaten dira labratuta: «Honaino iritsi zen ura». Historia da, azken batean. Gure historiak ere beste bat mereziko luke: «Honaino iritsi zen gure grotza». Alabai- na, etsi egin beharko dugu, ez dugu hori jasoko duen historialaririk aurkituko, historialaria ez baita kiratsaz arduratzen.



Inauteriak Nafarroan...

Leitza ●

# Atsoguratuko al zara?

Bihar hasi eta astearte bitartean, leitzarrek inauteriak ospatuko dituzte

**Azkenean heldu dira aurtengo inauteriak Leitza. Mundu osoan zehar zabaldurik dauden ospakizunen eskutik, datozen lau egunetan arbaso zaharren sinismeneta itzuliko dira leitzarrek.**



Bihar hasi eta astearte arte, atsoguratuko aukera izanen dute leitzarrek. ● ELI BELAUNTZARAN

**I**NAUTERIAK, KARNABALAK, ARATUSTEAK... Euskal Herriko bazter guztietan ospatzen diren jaiak ditugu hauek. Leitza ohitura handiko ospakizunak dira. Franco diktadorearen garaian ere, Euskal Herriko herri askotan inauteriak debekatuta ere, Leitza beti antolatu izan dira. «Herriko festa tikiak zirela esaten omen zuten herrian, eta horri esker, inauteriak beti ospatu izan dira Leitza», adierazi du Jaione Astibia zinegotziak.

Ospakizunak bihar larunbatarekin hasiko dira. Arratsaldeko hiru eta erdietan, nahi duena etxez etxe diru eskean joan ahal izanen da, eskaleen moduan. «Lehen, herrian ez zegoen dirurik inauteriak antolatzeko. Horregatik, jendea herriko etxetara joaten zen diru eske, musikariei ordaindu ahal izateko. Egun ohitura mantentzen da, baina dirua Aurrera elkartekoei ematen zaie», dio Jaione Astibia. Gauean, urtero bezala, Leitza karrikak eta tabernak jendez beteko dira.

Igandean, eguerdiko hamabietan, karrozen desfileak kolorez beteko ditu herriko bazter guztiak. «Urtetik urtera gero eta bizilagun gehiagok parte hartzen du», gaineratu du Astibia. «Karrozak ikusgarriak izaten dira, eta jendeak lan handia egin behar izaten du. Duela hiruzpau urte, hainbestearainoko zen desfilea ari zen jendea, ataso bat suertatu baitzen herrian», Atsoguratuen bazkaria ere

eginen da; hau da, herri bazkaria eskolako jantokian; *atsoguratu* hitzak 'mozorrotu' esan nahi du bertako hizkeran.

## Baserritarren ahaleginak

Leitza inauteriak ohituraz beteriko ospakizunak dira. Astelehenean, baserritarren txanda izanen da. Goizeko bederatzietan, Sakulu, Erreka, Arkixkil eta Gorritzaran auzoetaraino joa-

nen dira leitzarrek diru eta janari eske. «Guk asko estimatzen diegu baserritarrei egun honetan egiten duten lana», aipatu du Jaione Astibia. «Taldea, jendea baserriz baseri joan ohi da diru eske. Baseri bakoitzak suzuria botatzen du, eta horrela badakigu nora joan behar dugun. Dirua emateaz gain, sekulako banketeak eskaintzen dizkigute gure baserritarrek. Egun osoa ematen dugu kanpoan,

etxeko txistorra, solomoa, krocketak, txokolate beroa... jaten».

Astearte goizean, Erasote auzokoei bisita egingen diete, eta arratsaldean eskolako ume guztiak, bat bera ere falta gabe, plaza aterako dira desfilean, eta txokolatea hartuko dute. Gaueko dantzaldiarekin, leitzarrek agur esanen diete aurtengo inauteriei.

→ Estibalitz Ortega

## Sunbilla ●

### Karrozen desfile handia igandean

AZKEN URTEOTAN INDAR HANDIA HARTU DUTE Sunbillako inauteriek. Gaurdanik igandea bitarte, makina bat ekitaldi izanen dute sunbilarrek inauteriaz gozatzeko.

Gaur, ortzirala, bazkaria egiteko, herriko gazteak baserriz baseri puska biltzen aterako dira goizean goiz, gosalduta eta gero. Arratsaldean haurren txanda izanen da, eta gauean, emakumeena. Inauteriak aitzakia hartuta, ortziralean herriko emakume antz elkartzeko da afaltzera; urtetik urtera indartzen doan ohitura da, gainera.

Bihar ere gazteak eskean ibiliko dira,

ortziralean bezala, zapia gurutzaturik paratuta eta galtza urdinak eta atorra kuadro-duna jantzita. Baina Sunbillako inauterietako egun handia igandea izaten da: goizeko hamaikak aldera karrozen desfilea egingen dute, eta desfileko lehen bi orgetakoek salda, tortilla pintxoak eta ardoa banatuko dute.

Inguruko herrietako jende antz bildu ohi da igandean orgak ikustera. Izan ere, sunbilarrek lan ikaragarria hartzen dute inauterietarako karrozak prestatzen. Azken urteotako joerari segika, albiste iturri izaniko gaiak leku berezia izanen dute.

## Aniz-berroeta ●

### Inaute ttikienak

ANIZ ETA BERROETA BAZTANGO HERRIRIK ttikienak dira. Basaburuko kuarteleko bi herri hauek 200 bat biztanle izanen dituzte elkarrekin. Bata bestearen ondoan daude, kilometro eskasera, eta, horregatik, inauteriak elkarrekin ospatzen dituzte.

Gaur eta bihar izanen dira jai giroan.

Gaur, ostiralarekin, Aniztik ibiliko dira, txistor, arrautza eta xingar puska biltzen, gauean Anizen bertan afaria egiteko. Bihar goizean akordeoilariaren laguntzaz Berroetan bilduko dituzten puskek, ordea, gosaria egiteko izanen dira. Eta gauean, afaria berriz ere, Berroetako elkartean.



urdai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

## Eguzki puxka bat

Eguzki boteretsuak gauza orotan marratzen du bere bidea eta eguzki erloju bat, azken finean, ibilaldi izugarri horren laburpen bat besterik ez da. Munduan egun bakar batez pilotzen eta korapilatzen diren argi eta itzal infinituak orratz bakar batera eta plano inklinatu bakar batera mugatzea da. Badira munduan orratzak kopuru neurtezinetan (gu geu barne) itzal kopuru neurtezinetan banatzen dituztenak. Itzal mugikorak, gainera.

Jainkorik balego, esate baterako, txinaurriek belar hostoen gainetik banatzen dituzten itzaltxo ñimiñoekin emango zigun ordu zehatza, eta txinaurritegiaren kaosari begira, «bostak eta hogei bost dira» esango luke, edo «goizeko hamaikak hogei gutxi dira». Jainkorik balego, belar hosto bakar batekin aski luke. Baina jainkorik ez dagoenez, eguzki erlojuak asmatu behar izan ditugu (beste gauza askoren artean) infinitua mugatzearen. (Bikotekideak eta maitasuna bera ere, bururatzen zait, aukera infinituak mugatzearen sortu ditugun modu berean).

Eguzki mugikor eta boteretsu hori gure etxean ere sartzen da, doike. Etxe alokatu hau argitsua dugu. Ez da batere normala, Iruñeko Alde Zaharreko etxe gehienek kobazuloak diruditelako. Aldame-neko etxe gehienetan eguzkiaren argiak ez du deus ere argitzen. Itzala da nagusi. Eta itzal iraunkor horrekin ez dago eguzki erlojurik. Gu-rean, jainkoari eskerrak!, eguzkia punta batetik bestera sartzen da.

Orain arratsaldea da. Etxeko salan dagoen zurezko mahai handiko izkina batean eguzkiak jotzen du. Argiak, benetako argi txorrotada horrek, arratsalde guztia behar izan du mahai guztia gurutzatzeko eta orain mahaiaren azken izkinatxo hori, bailara ospelen gainetik mendien puntak argitzen diren antzera, argitzen da, urre kolorez, eguzki erloju baten azken ordua balitz bezala. Eta urrezko azken ordu hori katus gainezka dago, katus bete-betea, mahai gainean etzanda dagoen katuaren buruaz bete. Begiz eta bibotez bete. Eta ematen duen itzala gerora etorriko den gauaren lehendabiziko orduaren aldarrikapena da. Jainkoa banintz, bibote horien itzala seinatuz, «bederatzia eta bi minutu eta hamasei segundo» esango nuke ●





Leitzako zineko proiektore gela.  
● PATRICIA ASTRAIN / ARGAZKI PRESS

Leitza eta Etxarri-Aranazko zinema aretoek oraingo film komertzialak eskaintzen dituzte asteburuetan

**E**TXARRI-ARANAZKO UDAL ZINEMAN *Una rubia muy legal* komedia eskainiko dute asteburu honetan. Eta aurrekoan *Ni una palabra* pantailaratu zuten, Michael Douglasena. Zinema komertziala eskaintzen dute Etxarri-Aranatzen; Iruñean, Tuteran edo Lizarran ematen dutenaren berdintua. Apur bat zailago egiten zaie, hori bai. Etxarrin aspaldi itxi zituzten Aralar zinematokiak. Zinema ikusi nahi izanez gero, Iruñera jo behar zuten etxarriarrek. Aralar zinematokia kultur etxe bilakatu zen, eta duela pare bat urte etxarriar batzuek proiektore zaharra martxan jarri zuten berriz. Lehenbiziko haiek zinemaren ardura utzi zuten, eta egun, Asier Karasatorre, Inaxio eta Andoni Igoa, eta Maider Unzilla gazteak dira arduradunak. «Uste genuen ez zuela lan askorik ematen», erran du Unzillak. «Baina bada lana.

## Berako zinekluba

BERAKO KULTUR BATZORDEAK HURRENGO HILABETE-etan zinekluba paratuko du abian, herrian «kalitateko zinema eskaintzeko». Zineklub horren nondik norakoak aztertzeke, atzo, lerrook idatzi eta gero, bilera egitekoak ziren. Eskualdeko zinema areto guziak 60ko hamarkadan desagertu ziren, eta orduz geroztik zinemak ez du normaltasunez tokirik izan. Lehen, Biena izeneko zinematokia zegoen Beran. Duela asko itxi zuten, 60ko urteen bukaeran. Dantzaleku bilakatu zen gero, baina segituan bota zuten eraikina, etxebizitzak egiteko. Egun, beratarrek Iruingo aretoetara jotzen dute zinema ikusteko. Hain zuzen ere, horrek baldintzatu du Beran zinema emanaldiak egiteko mo-

dira beti». **Oraingo** horrek erran nahi du duela hilabete gutikoak direla. Unzillaren iritziz, herritarren erantzuna oso ona da. Lakuntzatik eta Arbizutik etorzen da ikuslaren bat, baina gehienak Etxarrikoak dira. Ikusle kopurua filmaren arabera da. Etxarriko zinema aretoan 278 lagun sartzen dira. *Lucia y el sexo* filmarekin bete egin zen. Zinemako arduradunek kontratua dute udalarekin; irabazirik egonez gero, euredako da; lana ez baitute musu truk egiten. Oraingo, irabaziak dituzte. Filmak ostegunetik larunbatera pantailaraten dituzte, 22:15ean; eta igandeetan, 20:00etan. Filma haurrendako egokia bada, 17:00etan beste emanaldi bat egiten dute. 14 urteik behetikoeke 2,50 euro ordaintzen dute sarrera, eta helduek, 3,60; baina Nafarroako Kutxako klubetako bazkidea izanez

## Maider Unzilla


'Etxarriko zineko arduradunetako bat'

«Filmak Gasteizko Guridi Zinemak ematen dizkigu, eta nahiko berriak dira iristen zaizkigun pelikulak»

Aspaldi, herri anitzetan zinema emanaldi iraunkorrak eskaintzen zituzten aretoak zeuden; zinematoki parrokialak batez ere. Zinema, baina, ikusle kopuru handia eskatzen duen industria da, eta, horregatik, areto horiek herrietatik desagertuz joan ziren. Azken urteotan, demografiaren arau horri aurre egiten dioten zenbait ekimen abiatu dituzte Nafarroan; hala nola, Leitza edo Etxarri-Aranatzen.

Hirieta zinetoki handietan bezala, herrietakoetan ere gaur egungo film komertzialak pantailaraten dituzte. Iruñean. ● JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

dua. «Iruingo multizinemak oso hurbil ditugu, eta horiekin ezin da lehiatu», erran du Berako kultur koordinatzaile Jon Abrilek. «Ezin sartzen ahal gara zirkuitu komertzialean eta zinema iraunkorki eskaini. Horregatik, erabaki genuen zinekluba antolatzea, kalitateko filmak emateko». Asmoa dute zinema emanaldiak zikloka antolatzeko, zuzendari, herrialde edo genero jakinen arabera. Berako Kultur Etxeak zinema emateko beharrezkoa den azpiegitura badu, 2000ko abuztuaren Bertizko Turismo Partzuergoarekin batera erosi baitzuten tresneria guziaz. 1991n inauguratutako kultur etxeak emanaldi areto bat du. Lehen, emanaldi bat egin behar zuten bakoitzean makina alokatu behar zuten; 2000 urtean, 35 milimetroko bi proiektore erosteko aukera sortu zitzairen arte. Iruñeko Mikael zinematokitatik kendu behar zituzten proiektoreak, eta beratarrek prezio onean erosi zituzten.



Etxarriko zinemaren helduek 3,60 euro ordaintzen dute eta haurrek, 2,50. ● JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

# Zinema herrietan



gero, 2,10 euro bakarrik. Zinema denboraldia irailetik maiatzera doa. «Maiatzean, egiten duen eguraldiaren arabera, lehenago edo geroago bukatuko da», adierazi du Unzillak. «Eguraldi onarekin jendea ez baita zinemara joaten; gelditzen da plaza».

## Leitza boluntario taldea

Etxarrin bezala, Leitza ere eguraldi ona egiten duenean herritarrek ez doaz Herri Zinemara. Horregatik, zinema denboraldia urritik Aste Santua bitartekoa da. Funtzionamendu ezberdina du, hala ere. Udalak erosten ditu filmak eta lokala mantentzeaz ere hura arduratzen da, baina emanaldien kudeaketa hamasei boluntarioek talde batek eramatean du. «Leitzako parrokian zinema izan zena udalak erosi zuen, eta 1991tik zinema ema-


Batzuen ustez, zinema benetako zinema izateko litxarrerriak jaten ikusi behar da. Etxarrin saltzen dituzte. ● JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



## Doneztebeko zinematokia, itxita

DONEZTEBEKO UDAL ZINEMATOKIA 1987AN INAUGURATU zuten, eta ordutik, igandero eskaini zituzten filmak, azarotik martxora. Baina duela pare bat urte utzi zioten emanaldi iraunkorrak eskaintzeari, udalak defizit handia baitzuen urtero, milioi eta erdi pezetakoa batzuetan. «Azkeneko urteetan galerak gogor samarrak izan ziren, eta pentsatu genuen momentuz ixtea», esplikatu du Doneztebeko alkate Miguel San Miguelek. «Kostuak joaten ziren goiti, langileei pagatu behar zitzairen, eta ez zen posible, herri ttikia baizik. Jende guti etorzen zen, eta filmak 75.000 eta 100.000 pezeta artean kostatzen ziren. Anitzetan hori bera ez genuen biltzen, ezta erdia ere. Proiektorea erabiltzen zuenari pagatu behar zitzaion, leihati-

lan zegoenari, barruan zegoenari... Eta ez zen posible». Orain, alkateak adierazi duenez, aztertzen ari dira zinema emanaldi iraunkorrak nola paratu berriz martxan; alternatiba baten bila ari dira. Bitartean, zinematokia beste gisa batez ibiltzen dute. Esaterako, Bidasoako Film Laburren emanaldiak bertan izaten dira. Eguberrietan, Erreka elkartearen eskutik, bospasei film eskaini dituzte. Antzerki emanaldiak eta hitzaldiak ere zinematokia egiten dira. Eta abesbatzak eta txarangak bertan entseatzeko dute. Gainera, zinematoki goiko aldean Doneztebeko musika eskola berriaren egoitza paratzeko lanak hasiak dituzte. Heldu den urteko eskolak bertan hasia espero dute.



Asier, Maider, Inaxio eta Andoni, Etxarriko zinemako arduradunak. ● JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

naldiek ez dute etenik izan», esplikatu du Joseba Azpirozek, boluntarioetako batek. «Izorraturik zegoen makina bat konpondu eta martxan jarri zuten. 1998an erosi zuten bigarren makina, filma atsedenek egin gabe bota ahal izateko. Orduan eserlekuak berritu ziren, eta sala txukundu». Hasieran, boluntarioek egiten zuten lan zuzenean banatzaileekin. Baina gero bilatu zuten bitartekari bat, eta hark eraztu zituen gauzak, baita filmak prezio hobean eman ere. «Pelikulak ez dira orain Iruñeko kartelean daudenak, baina bai orain bi hilabete egonak», adierazi du Azpirozek. «Orain karteleran daudenak martxoan-edo ikusiko ditugu guk». Etxarrin ez bezala, Leitzako zinemak ez dute litxarrerriarik saltzen. «Azkeneko urteetan hartzen zuten ardura hori Aresoko azken kurtsoko ikasleek, diru pixka bat ateratzeko edo. Baina ez omen zuten askorik ateratzen, eta aurten ez dute egin». Leitzako zinema aretoak hirurehun bat lagunentzako toki du, baina zaila da betetzea. Iazko denboraldiko batez bestekoa 72 ikusletakoa izan zen. «Herritarrek ez dira guk nahi adina etorzen», dio Azpirozek. «Eta diru galera izaten dugu urtero, 250.000 eta 300.000 pezeta artekoa. Baina udalak ez du trabarik jarri. Hilabeteetan ematen den zerbitzua da hau, eta defizita da egun batean txaranga bat ekartzearen antzekoa. Hortaz, honekin segituzeko asmoa dago». Asteburu honetan ez dute filmik pantailaratu, inauterriak direlako. Baina hurrengo-

an *El destino* eskainiko dute, beti bezala, ostiralean 22:30ean eta igandean 19:30ean. Sarrerak, 3 euron.

## Elizondo eta Altsasuko egitasmoak

Leitza eta Etxarriko etsenpluei jarraiki, beste zenbait herritan ere zinema emanaldi iraunkorrak izan nahi dituzte. Elizondon kultur etxe berria egin nahi dute. Udalak lehiaketara ateratu du proiektuaren idazketa eta espero dute 2004 urterako zabalik egotea, oraindik lursailen bat erosi behar duten arren. Hiru zati izanen ditu eraikinak: 300 bat lagunentzako zinema eta antzerki aretoa, Baztango udal liburategia eta erakusketaretoa. Beraz, bertan zinema emanaldi iraunkorrak eskaintzeko proiektio aretoa izanen du kultur etxeak. Altsasun ere kultur etxe berria izateko bidean dira. Domingo Lumbier eskola zaharretako orubean hiru solairutako eraikina egin dute. Lanak otsaila bukaeran akituko dituzte, baina gero barruko ekipamendu guziaz paratzea faltakoa zaie. Asmoa dute kultur etxe berria urri partera irekitzea. Eta etxe berri horretan bi proiektio areto izanen dira, 300 eta 100 lagunentzako. Altsasuko kultur koordinatzaileak erran duenez, ari dira aztertzen zinemaldi emanaldi iraunkorrak nola antolatu, ez baitute kultur etxearen bizitza zinemaren menpean egotetik nahi. Nolanahi ere, asmoa dago zinema emanaldiak emateko.

→ Asier Azpilikueta





# Musean, isilik

**Musik ez.** Gidatzea eta gidatzea ez omen da gauza bera. Galtzea eta galtzea ere ez. Badira-eta galera duinak eta porrot umiliagarriak —bestela, galde diezaietela M-13az **Jaime Mayor Oreja** Kixoteari, eta **Nicolas Redondo Terreros** Sancho Panza desgrazian eroriari—. Musean ez da gauza bera galtzea jokoan guztiz kontzentratu ari den bikote jatorraren aurka, ala patxada ederrean solasean ari den harroputz parearen kontra. Ikurrina baino **baskoagoa** den Gerardo mus bikotekideak hautsontzian utzi puru-punta horren lekuko. Gerardo **Carlos Herrera** bezain puruzale amorratua da —alderaketa ez zaio gustatuko: Sevillako esataria ikaragarri atsegin du, baina taxian ez du jartzen, «gatazkarekiko duen jarraigatik»—. Alta, egunean ale bakarra erretzen du, hain justu Monte Carlon jokatzeko dugun mus partidakoa, lanean, taxian, jakina, ezin duela erre. Hartara, bazkalondoko karta jokoan purua mantso, samurki, musuka erre ohi du. Puru-mutxikin txiki bezain ustelgabea, zimurrik gabea, perfektua laga —utzi hitza ez errepikatzeke ez ezik, balio dezala bizkaierako esamoldeak **TMEO** aldizkariko **Euskaldun despistatuaren kronikei** omenaldi xumea egiteko ere— ohi du. Gaur, berriz, puru erdia txiki-txiki egin da abandonatu du hautsontzian. Hozka txikitu du, amorraren amorruez. Gerardo



Pedro J. Ramirez, 'El Mundo' egunkariako zuzendaria.



Federico Trillo, Espainiako Defentsa ministroa.

do ez da galtzaile txarra, ez eta ni ere, baina gaurkoa gehiegizkoa izan da.

**Parerik bai.** Unzuko lankide biren aurka aritu gara lehian. Ez dira nire sailekoak, etxetresna elektrikoaren alorrekoak, baizik eta kiroletakoak. Biok **Santiago Cervera**ren igualak dira. Unzuko kirol sailak *Los niños del Brasil* pelikula ematen du, saltzaile guztiek Osasun kontseilari erreionalistaren klonak baitituzte: jaka gris, alkandora urdin argi, gorbata gorri ilun zimurrik gabeak, ile beltz gominaz betea, musu luze zurbila, erraiak behar baino gutxiagotan husten dituenaren keinu negatua. Saltzaile guztiek jario oparoa izan ohi dute —dugu—. Unzuko kirol saltzaileek oparoaz

gain, hutsala dute, puztua, garai batean Iruñeko Udaleko zinegotzi eta egun Legebiltzarreko parlamentario den alderdi erreionalistako sortzailearen garai bateko ustezko amorantearenaren iguala —balio dezala subordinatuz eta zeharkako aipamenez josiriko esaldiak gehigarri honetan berean urteetan lan fin bezain kriptikoa egin duen **Motxorrosolori** omenaldi xumea egiteko—. Musean aritu garen bitartean, *tartartar* eten gabean aritu dira.

**Hordago.** Gu serio demonio kartetan eta kartez aritu garen bitartean, haiek tontamentian hiru partida irabazi dizkigute solasaldi bizian. Hasi bezain pronto, «toki guztietan egiten duten

bezala», Gazteluko plazako aztarna arkeologikoak porlanez estali beharko litzuketela adierazi dute, eta gu irmo, kartetan. Lehen partida irabazi eta gero **Miguel Sanzen** «karisma ikaragarria» goraiatu dute, eta gu tinko, kartetan. Hirugarren partida irabazi dutelarik mutil-lagunarekin ezkondu den Norvegiako ministro homosexualaren lepotik barrezka hasi dira. Biotako batek «imajinatu **Felipe Gonzalez** eta **Boris Izagirre** ezkondu» bota duenean, Gerardo, kartetan irabazteko itzaropena galduta, eztanda egin du, eta dialektika homofoboan hordagoa bota:

«Norvegiako ministroa eskuindarra da; beraz, **Federico Trillo** eta **Pedro J. Ramirez**ren ezkontza imajinatu beharko zenukete, edo **Miguel Sanz** eta **Serafin Ramirez**ena». Barre egiteari utzi gabe, goi kargu erreionalista heterodoxoaren kalko genetikoetako batek hordagoa onartu du: «Imajinatzen hasita, **Arnaldo Otegi** eta **Klaudio Landa** ezkontzen imajina ditzakezu». Akabo: kartetan eta sorgin gupil homofoboan galtzaile. Gerardo atzera egiten hasi da, ongi legokeela eta homosexualak heterosexualek adina eskubide eduki behar dituztela azaltzen, beranduegi, ez baitu aurrera egiterik izan, kirol zapata saltzaileen barre algarrek gailenduta.



## panpilonia zirkus

### Iruinarria

«Ateratzen ari den lur hori oso ona duk gara ereiteko». Anbrosiok erraña da, eta, Anbrosiok badaki, Mendillorriko galsoroetako nekazaria izan baitzen jubilatutako arte. Duela 20 urtetik honat, Gazteluko plazako ibilkari nagusia da. Negu gorrian, Café Iruña-raino iristen den eguzki izpirik zuriena ere hartzen du, alde hori baita ipar beltzaren astinduak goxatzen dituen bakarra. «**Iruña osoan, aztarrika hasi eta tufarria baizik ez duk ateratzen, harri urdin hori, eta, hemen, to, hara lur hori. Baten batek botako zian**».

Iragan uztailaz geroztik, bizimodua aldatu zaio Anbrosiori eta bera bezalako jubilatutako guztiei. «**Ezin itzulirik eman plazari**» eta oso haserre daude metalezko hesiarengatik. «**Hesi batekin aski ziaten,**

**baina zer uste zuten, barnekoa ikusi gabe etsita geldituko ginela ala? Bai zera!**». Izan ere, hamaika balkoi probatu ondoren, obrak oso ongi ikusten dira Alkartetxeko bigarren solairutik —«**gorago ez, etxea habetua baitago. Gutxi fia**»—, Patxi Atozki luthierraren kaleriatik eta Goia-Zenborain senar-emazteen etxetik. Diputazioaren balkoiak ere ez dira txarrak, baina herriko foruzain adiskidea jubilatutako berri da eta ez dute sartzerik, «...**eta ez gaudek sasoiaren Itoizkoak bezala eskalatzen hasteko**».

«**Onena litzateke, barrenetik ikustea, baina egunero sarrera galarazi zigutek**». Jubilatuei bai, baina ez, ordea, Corpas Mauleonen familiari, ezta Mezkiriz andeari ere, baina azken hori arkeologoa da, jakina. Bitxia izan zen nola sartu zen



Gazteluko plazako lanetan aurkituriko iruinarria.

LANDER FERNANDEZ DE ARROJABE / ARGAZKI PRESS

Enrike Diez de Ultzurrun

udazkeneko euriak hasi zirenean. Bazirudien Afrika beltzera safari egitera zihola, salakot eta guzti jantzita. Hiruzpalau langileren artean airean eraman zuten, lokatzak ez itzaltzeko andereak belantzaraino zeramatzan bota beltzen distira. Obretako buruak honela egin omen zion diosala: «**Doctora Mezkiriz, supongo**».

Mezkiriz anderea, orain, egunero dabil arkeologi hondarren artean, iruinarria

«**Iruinarriak' bere bigarren hitza galdu zian, 'harria', alegia. Eta 'iruina'-tik, ba, 'Iruin' edo 'Iruña' atera duk**». Anbrosiok eta adiskideek, gainera, uste dute, zerbait euskaraz agertuko dela idatzita edota baten batek agerrarazi beharko lukeela. Horregatik, «**zeren zain daude hiriko euskaltzaleak sekulan egin den ekintzarik zoragarriena egiteko?**».



# Jabier Bereau

ITURENGO JOALDUNA

## «Inauterietan mozorroto egiten gara, ez disfrazatu»

**E**UROPAKO INAUTERIRIK ZAHARRenetakoak dira Ituren eta Zubietakoak. Jende anitz biltzen da azkeneko urteetan, eta aurten ez da izanen salbuespena. Ituren eta Zubietako biztanleek mozorroak prest dituzte, eta bihar jantzi eta asteartera arte ez dituzte kenduko.

■ **Inauteririk antzinakoenak dira Ituren eta Zubietakoak. Garai batean bezala ospatzen dira?**

Bai, berdintsu, baina diferentziak badaude. Gaur egun jende gehiago etortzen da ikustera, fama handiagoa dute. Parte-hartzaileak ere gehiago dira orain, joaldunak anitz gehiago dira. Lehen joare guti izaten zen, eta, ondorioz, joaldun guti ateratzen zen. Gaur den egunean nahi hainbertze joare eta traste bada. Hori ez da arazoa.

Mozorroak ere lehen egiten ziren, eta orain ere bai. Hori berdintsu dago, diferentzia joaldunetan dago.

■ **Jende anitz etortzen da Ituren eta Zubietako inauterietara. Anitzentzat ikuskituzun itxura hartu du. Nola bizitzen duzue barrenetik?**

Guri ez zaigu inporta ikuskituzun edo desfilea izatea guk ongi pasatzen badugu. Nik joareekin disfrutatzen dut betiro. Baina jendeak errespetatu egin behar du hemengo inauteria. Batzuek nahi duten guztia egiten dute, joaldunen artean sartu... eta hori ez da ona.

■ **Joaldunak dira inauterietako protagonistak, baina gainerako mozorroek ere badute garrantzia, ez?**

Bai, duda gabe. Hemen jendeak inauteriak joaldunekin lotzen ditu. Ez da orga elegantetik egiten, gauza zaharragoak egiten dira. Inauterietan mozorroto egiten gara, ez disfrazatu, etxeko arropa zaharrak erabiliz, zakuak... mozorroto egiten dira. Berezko inauteria da.

**Jabier Bereau Iturengo joaldunetan zaharrena da. Beti ezagutu ditu herrian joaldunak, eta aurten ere aterako da, ttiki-ttikitandik egin duen moduan.**

**Egun bereziak dira inauterietakoak, eta herriaren elkartasuna da egun hauetan gehien estimatzen duena.**

■ **Jendeari ziria sartzea da inauterietako ezagurri nagusietakoa. Jendearen uholde horren eraginez gertatzen da, eta horrela izan da beti?**

Inauteriaren berezkoa da hori. Garai batean aitzurra luze batzuen gisakoekin ateratzen ziren leihoetan zeuden atsoak uxatzeko. Orain bizpahiru urte berriz atera zituzten, baina hori aspaldikoa da. Hartza, jendea uxatzea beti-betiko kontua da.

■ **Iturendik Zubietara eta Zubietatik Iturenera egiten dituzuen ibilbideak dira ezagunenak jendearentzat, baina hori baino gehiago egiten duzue, ezta?**

Oinez egiten dugu joan-etorria, nahiz herrira bueltatzea autoetan egiten dugun, bertzelakoan luzeegi egiten zitzaien.

Oinez egiten dugu joan-etorria, nahiz herrira bueltatzea autoetan egiten dugun, bertzelakoan luzeegi egiten zitzaien.

gun. Anitez ere jende gehiago ateratzen da gaur egun, eta janzen denbora gehiago pasatzen dugu. Herrian buelta bat eman, salda hartu, eta berriz ere herrian buelta bat ematen da. Guk salda hartzen dugun bitartean mozorroak jendea xixatzen ibiltzen dira. Otorduek ere berebiziko garrantzia dute, dudarik gabe. Txekor bat hiltzen dugu, eta larunbatean hasi eta asteartera bitarte jaten dugu hori herriko elkarte batean.

■ **Zein da unerik politena edo hunkigarriena?**

Denak dira politak, inauteriak direlako bestarik politenak.

«Inauteriak berezkoa du jendeari ziria sartzea. Garai batean aitzurra luze batzuen gisakoekin ateratzen ziren, leihoetako atsoak uxatzeko»

→ Jon Abril

● EGUNKARIA



### soslaia

Jabier Bereau 44 urteko iturendarra da. Joaldunen artean bera da zaharrena, baina gehien atera dena ere. Urteko egunik politenak dira berarentzat, eta inauterietatik herrian dagoen elkartasun giroa maite du gehien.

Ttiki-ttikitandik atera izan da joaldunekin; ttikien taldean lehenbizi eta helduekin gero. Kontua ere galdua du zenbat urtez atera izan den. Arrakastaren giltza zein den ez daki, baina arrakasta horrek inauterian ez duela eragin handirik izan erran du. Hala ere, errespetua eskatu dio kanpotik datorrenari.

Disfrazen aurrean, mozorroak errebindikatu ditu iturendar honek. Mozorroa etxean aurkitutako arropa zahar, larru eta gisakoekin osatutakoa da, eta disfrazatuta prestatutakoa. Aldea badagoela uste du, baina giroan ere.



## Subentziolandian galdurik



### Nafar Kronika

Aitor Arotzena

## Inauteri klasiko eta modernoak

**E**ratsun eta Orabidea aldean, bertze herri batzuetan bezalaxe, urtearekin eta euroarekin batera ailegatu ziren Inauteriak. Aste hondar honetan, mendi aldeko Inauteri entzutetsuenak ailegatuko dira: Ituren eta Zubietakoak. Asteburua puxka biltzen ibili ondok, astelehenean Zubietako joaldunak bisita eginen diete iturandarrei, bidean Aurtizko joaldunak bilduz. Asteartean, bisita bueltatu eginen diete iturandarrek zubietarrei, oraingoan ere bidean duten Aurtizko joaldunak bilduta.

Joaldunetz gain, narraskeria klase guzietarik egiten dituzten mozoak izanen dira inauteetako protagonista. Inauteri modernoagoak ere ikusgai izanen dira aste hondar honetan. Igandean, azken urteetan hainbat ospe eta arrakasta lortu duten Sunbillako karrozak izanen dira ikusgai, gainezka eginen duten herriko karriketan. Karroza eta mozoa aukeratzea izanen da, hain zuzen, egunotan aunitzen buruhaustea. Eginen nuke apustu hainbat Bin Laden, taliban edo euro ikusiko ditugula karrika bazterretan, telebistako saio arrakastatsuren bateko protagonistekin batera.

Bertze jantzi tipikoa erromatarrarena izan ohi da, baina Nafarroako Gobernuak ez luke begi onez ikusiko. UPNkoak haserre daude erromatarrek Nafarroari egin dioten ekarpenekin: nola demontre gogoratu zitzaizen erromatarrei Iruñeko Gazteluko plazaren azpian bainuetxea eraikitzea? Gaur egun, enparantza honen obrei buruzko erreferenduma eskatu duten taldeekin bat egin nahi al zuten Julio Cesar eta konpainiak? Noski, erromatarrek ez zuten autoendako parking-en beharrik... Asterixek —eta Yolanda Barcinak— erranen lukeen bezala, zoratuta daude erromatar hauek. Baina Iruñeko alkatesak erantzun egin die lanekin segitzea kritikatzeko diotenei: parkingeko lanak egin ez bagenitu, nola jakinen genuke hor azpian zegoen altxorra? Hiriarendako beharrezkoa den aparkalekua egin eta plaza oinezkoendako moldatzeaz gain, historia jakiteko baliagarria izanen dira obrak. Honek ez du mozo beharrik!

## gure aukerak

### MUSIKA

- **Iruñea:** Escarabajos taldeak Txantreako Akelarre tabernan joko du, gaur, 21:00etan.
- **Larraga:** Cuerno de Chivo taldeak Ibiza tabernan joko du, gaur, 23:30ean.
- **Bera:** Atzokoak abesbatzak kontzertua eskainiko du, bihar, 20:00etan, Kultur Etxean.

### HITZALDIK

- **Lizarr:** Emakume Abertzaleon Topaketa Feministen ondorioak aurkeztuko dituzte, gaur, 18:00etan, Emakume Asanbladako lokalean.
- **Iruñea:** Bihar, 16:30etik aurrera, Floren Aoizekin kafe-tertulia eginen dute Aitzina tabernan, *Ezker Abertzalearen historiaz*.
- **Iruñea:** Astelehenean, Jesus Altuna arkeologo eta irakasleak *Gure historiaren hasieran* izeneko mintzaldia eskainiko du, 20:00etan, Erraldien Txokoan.
- **Iruñea:** Ostegunean, Jon Alonso idazlea *Euskal Karma eta Agur, Darwin* bere azken bi liburuez solastatuko da, Zaldiko Maldikon, 20:00etan.
- **Zangoza:** Ostegunean, Aingeru Epaltzak Nafarroako elebitasunaz hitz eginen du, Kultur Etxean, 20:30ean.

### ANTZERKIA

- **Iruñea:** Hortzmuga taldeak *Badum mundua* haurrentzako lana taularatuko dute, bihar, 12:00etan, Mikael aretoan.
- **Iruñea:** Txamuskina taldeak *Mohikanò antzerkia* izeneko helduentzako lana eskainiko du, asteazkenean, Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:30ean.

### IKASTAROAK

- **Iruñea:** Otsaila eta martxoa bitartean, Gazteriaren Etxean egiten dituzten ikastarotetan izena emateko epea ostegunean akituko da: euskal dantzak, tai-chi, makillajea, eskulanak eta pintura. 14 eta 30 urte bitartekoei zuzenduta daude, eta matrikula 22,30 eurokoa da.

### ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Javier Gamez mendizalearen *De los susurros del camino* izeneko argazki erakusketa hila akitu arte izanen da, Nafarroa Kirol Elkartearen (Jarauta, 78), astelehenean ostiralera, 19:00etatik 21:00etara.
- **Bera:** Julio Caro Baroja

Etnografia museoak antolatuta, otsailaren 2a arte *Nafarroa Etnografikoa. Iragina gogoan* erakusketa izanen da, Kultur Etxean, astelehenean larunbatera, 18:00etatik 20:00etara.

► **Burlata:** Fermin Biurrarena artistaren margolanak Joakin Azkarate karrakako kultur aretoan izanen dira, otsailaren 3a arte; asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.

► **Iruñea:** Adolfo Lahoza aragoiarraren margolanen erakusketa otsailaren 8a arte izanen da, Hezkuntza Departamentuko klaustro gaineko galerian. Lanegunetako goizetan bisitatzen ahal da.

► **Zangoza:** Hainbat artista garaikideren lan grafikoa biltzen duen *Suite Olympic Centennial* izeneko erakusketa otsailaren 12a arte izanen da, Kultur Etxean, asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara.

► **Barañain:** Izarren herria ezagutzeko *Planetario bidaiaria* erakusketa Kultur Etxean izanen da, otsailaren 22a arte.


### BESTELAKOAK

► **Iruñea:** Nafarroako Goi Mendi Eskolako eski kolaboratzaile izateko eskaerak aurkezteko epea zabalik da. Curriculumak Mendi Federazioaren egoitzan eman behar dira (Paulino Caballero, 13).

## Asteko erakusketa

### Jon Landa

Zer: Jon Landa artista arabarraren olio margolanak; hiriko irudiak.  
Non: Ormolu galerian (Paulino Caballero, 42).  
Noiz arte: Urtarrilaren 31 arte.



● EGUNKARIA